

ERRIBERRI^{KO} ANTZERKI JAIALDIA

2022ko uztailaren 15etik 31ra

www.FestivalTeatroOlite.es

#AntzerkiaErriberri2022 / #KulturaBirkargatu



cultura
navarra.es



SARREREN SALMENTA MAIATZAREN 18tik AURRERA



INFORMAZIO GEHIAGO
WWW.FESTIVALTEATROOLITE.ES



SALMENTA ONLINE

www.FestivalTeatroOlite.es | www.baluarte.com

SALMENTA LEIHATILAN

BALUARTE

T. 948 066 060

- Maiatzaren 18tik uztailaren 5era, 11:00-14:00 /17:00-20:00. Astelehenetik larunbatera. Igandeak itxita.
- Uztailaren 18tik uztailaren 31ra, de 11:00-14:00. Astelehenetik larunbatera. Igandeak itxita.
- Uztailaren 6tik 17ra leihatila itxita egongo da.

ERRIBERRI

T. 948 741 703

- Ekainaren 18tik, asteburuetan eta jaialdian zehar, Turismo Bulegoan / Ardoaren Museoa (Teobaldoen plaza 4, Erriberri).
- Ostiraletan, 17:00 - 19:00
- Larunbat eta igandeetan, 10:00 - 14:00
- Emankizunen egunetan, 19:00 - 22:00

CENTRO CULTURAL TAFALLA KULTURGUNEA

T. 948 755 969

Ilargiaren Atzean (prezio bakarra 3 €) y *Lear!* (prezio bakarra 8€).

Sarrerak maiatzaren 18tik aurrera Centro Cultural Tafalla Kulturguneko leihatilan eta online baino ez dira saltzen, https://es.patronbase.com/_Tafalla/Productions web orrian

BEIREKO EZPELETA JAUREGIA

Sarrera librea edukiera bete arte.

ERRIBERRI 2022ko PREZIOAK	Online eta leihatilan, maiatzaren 18tik Aurrera	Gazte Txartela online eta leihatilan, maiatzaren 18tik aurrera
La Cavako ikuskizunak	18 €	10 €
Abonamendu osoa La Cava (14 emanaldi)	190 €	100 €
3 lanerako abonamendua La Cava (edozein egunetan aukeratzeko)	50 €	25 €
<i>La melancolía del turista</i> Erriberriko Jauregiko Arkuen Aretoan	8 €	4 €

MUGIKORTASUN MURRIZTUA DUTEN PERTSONAK Erriberriko Antzerki Jaialdian, emanaldi bakoitzerako lau leku daude gordeta mugikortasun murriztua dutenentzat. Sarrera horiek erosi nahi dituztenek Baluarteko eta Erriberriko txarteldegietan edo 948 066 060 telefono zenbakiaren bidez egin beharko dute (bi sarrera gehienez erosketa bakoitzean). Hartara, Antzerki Jaialdiak ezin die bermatu beren beharretarako kokaleku egokia izatea, gordetako leku horietarako ez den sarrera erosten duten mugikortasun murriztuko pertsonen. Edonola ere, antolatzaileak saiatuko dira ikus-entzule horiek kokatzen esparruak eskaintzen dituen aukeren barnean.

ERRIBERRIKO BETIKO JAIALDI BERRIA



Erriberriko Antzerki Jaialdiaren 2022ko edizioak aldaketa garrantzitsuak izango ditu. Garrantzitsuena, zuzendaritza artistiko berria, lehen aldiz kolegiatua eta bi emakumeren artekoa, Ane Pikaza eta María Goiricelaya, alegia. Begirada sozial eta garaikidearen aldeko apustua; programazioan Nafarroako konpainien presentzia sendotuz, Erriberriko, Tafallako eta Beireko espazio eszenikoak mantenduz; eta sorkuntza, zuzendaritza edo idazketa bezalako esparruetan antzeztuko diren lanetan emakumeen eragina nabarmenki areagotuz.

Programazio garaikidearen proposamena, askotarikoa, anitza, sorkuntzaren joera guztiak hartzen dituena, tradizionala ahaztu gabe. Antzerkia, baina baita dantza, zirkua eta musika ere. Ibilbide ospetsuak eta sona handikoak biltzen dituen programa, proposamen berriekin eta promesa gazteekin. Tokikoa, nazikoa eta nazioartekoa. Azken batean, hamabost egunetan proiektu desberdinak eta osagarriak ikusteko aukera, erbestearen, sare sozialen, beldurren eta frustrazioaren errealitateari lotuak, baina begirada positibo eta itxaropentsu batetik, Erriberriko Antzerki Jaialdiaren zigilu eta nortasunarekin.

Aurtengo kartelak oso ondo islatzen du oihala altxatu aurreko uneko emozioa. Une magiko horretan, aretoa isilik geratzen da, eta ikusleak adi egoten dira aktoreak eszenara noiz aterako diren ikusteko. Horrela datorkigu edizio hau ere, itxaropentsu, lanak eta prestaketak fruitu onak emango dituztela sinetsita. Jaialdia ezagutzen genuen bezala ospatzeko ilusioarekin, besaulki-patioa beteta eta kaleak eta plazak berreskuratuta. Kartelak azaltzen duen bezala, guztia hasten den uneko emozio berarekin, Erriberriko Antzerki Jaialdiaz goza dezazuen opa dizuet. Merezi du.

Rebeca Esnaola

Kultura eta Kirol kontseilaria



**READY OR NOT?
¿ESTAMOS LISTAS?
PREST?**



Beti pentsatu izan dugu artea arimaren egoera bat zela; gure pentsamendu sakonen adierazpen hori, elkarki begiratzeko eta elkar ezagutzeko leku hori. Antzerkiak, horren zati bezala, aurrez aurre jartzen zaigu eta liluratzen gaitu. Esanahiz betetako ametsetara garamatza eta nor garen eta nor izan nahi dugun bizitzen eta ulertzen laguntzen digu.

Erriberriko Antzerki Jaialditik eguneroko errealitateari eta inguratzen gaituen munduari buruzko begirada sutua eta konprometitua partekatu nahi dugu gurekin egon nahi duten guztiakin. Ikusleen jakin-mina piztea, astintzea, hunkitzea, harekin gozatzea.

Jaialdi batek hala behar duelako: Ospakizun handi bat, non elkarrekin bildu ideiak, emozioak eta irribarreak partekatuzko; esperientzia paregabea. Gure ziurtasunak eta sinesmenak alboratu, gogoeta eta elkargune berrietara bideratzeko, zein-tara zalantzarik gabe, pertsona kritikoagoak egingo gaituzten, irekiagoak eta partekatzen dugun gizarte aldakorren eragin handiago baten pean.

Bizi garen garai honetan, gure balioak kili-kolo daudela dirudien honetan, horrelako espazio batek bizikidetzarako eta demokraziarako eta askatasunerako gaitasuna ematen digu. Baita integraziorako ere, pentsamendua eta egonezina sustatzeko bezala. Ezagutza horrek guztiak askeago egingo gaituelako.

Hau da Erriberri: belaunaldi guztiei, publiko guztiei eta gure mundua astintzen duten arazo guztiei begiratzeko dien jaialdia. Espazio libre, bizi eta aldakorra. Eta hemen, askatasun honetan, amets egite honetan, nafar eszena bultzatu nahi dugu, eta Erriberrikoa jaialdi handien artean kokatu, Estatu espainiarrean zein nazioartean. Bere egitura osoa espazio parekide eta feminista bilakatu, berdintasuna sustatu eta inklusioa berrakatu, desberdintasunaren balio artistikoa normaltasunetik aldarrikatu.

Amets egin dezagun! Egin dezagun bizitzaz eta gizatasunez jositako jaialdi bat. Goza ditzatela ikusleek munduko ikuskizuniki onenak Erriberriko Jaialdian.

Ane Pikaza & María Goiricelaya

2022ko Erriberriko Antzerki Jaialdiaren
Zuzendari artistikoak

ERRIBERRIKO ANTZERKI JAIALDIA

Jaialdi bat femenoan, non programatutako 22 ikuskizunetatik 11 emakumeek sortu, idatzi edo zuzendu dituzten. Horietatik, bederatziz Nafarroako konpainienak dira; bi, nazioartekoak; bat, inklusioa; eta beste bat euskaraz, familiei zuzendua. Guztira 38 emanaldi, uztailako hiru aste hauetan Erriberri beteko dutenak.

Hauei gehitu bi Egonaldiak, bakoitza bi erakustaldirekin. Baita "Erriberriko Esperientzia" desberdinak ere: bi musika-talde, audioz gidatutako bisita bat Erriberriko kaleetan barna eta goi-mailako zirku-pieza bat.

Era berean, 15 parte-hartzaileentzako urteroko antzerkigintza tailerra mantenduko da, aurtun Paco Gámezek gidatua eta "Un escenario dentro de la cabeza. Laboratorio de escritura teatral" izenburupean. Mantentzen dira ere uztailaren 16an eta 17an artistekin eta kazetariekin egingo diren topaketak eta Nafarroako konpainiekin azken asteburuan egingo dena.

Has dadila festa!

UZTAILAK 15

20:00 / UDAL PARKEA, ERIBERRI

MARABUNTA 

GUILLEM ALBÀ & LA MARABUNTA
Clown ikuskizuna, kementsua eta energetikoa, zuzeneko musikarik onenak bultzatua.

22:00 / LA CAVA

LA PANADERA

Egilea eta zuzendaria: **Sandrà Ferrús**
IRIA PRODUCCIONES, CDN eta EL SILENCIO TEATRO

Conchak berrogei urte ditu eta bizimodu lasaia eta zoriontsua darama. Egun batean, sare sozialetan bere bideo intimoa bat dabilela esnatzen da

UZTAILAK 16

13:00 / TURISMO BULEGOA – ARDOAREN MUSEOA

TOPAKETA: “WINNIPEG, EL BARCO DE NERUDA”

Daniel Galindo eta Machús Osinagarekin

19:00 / CENTRO CULTURAL TAFALLA KULTURGUNEA
ILARGIAREN ATZEAN



Maialen Díaz

MALASPULGAS

Zuzendaria: **Virginia Cervera**

Ilazki bere ama Grazianarekin, hitzen sorginarekin, bizi den bederatzirteko neskatua da.

22:00 / LA CAVA

WINNIPEG, EL BARCO DE NERUDA

Laura Martel

PUÇA ESPECTACLES, LA JARRA AZUL eta GREC 2020

Zuzendaria: **Norbert Martínez**

Askatasunaren eta itxaropenaren aldeko kantua, Nerudaren seme-alabak deitzen diren erbesteratu horien guztien historiari ahotsa ematen diona.

UZTAILAK 17

13:00 / TURISMO BULEGOA – ARDOAREN MUSEOA

TOPAKETA: AGURTZANE INTXAURRAGA (LA TARARA) ETA SANDRÀ FERRÚS (LA PANADERA)

Daniel Galindo, Machús Osinaga eta Raúl Losáñezekin

Kazetariak eta profesionalak “Emakumeak eta eszena” gaiak arituko dira.

22:00 / LA CAVA

LA TARARA

Josi Alvarado

HIKA TEATROA

Zuzendaria eta dramaturgia: **Agurtzane Intxaurre**

70eko hamarkadan, Bilboko SanFran auzoan, Rosa hazi zen, neska biolinista bat. La Tarara izeneko prostituta bere mamuen aurkako borrokan laguntzen dio.

UZTAILAK 18, 19, 20, 21 ETA 22

11:00-14:00 / ERIBERRIKO KULTUR ETXEA

ANTZERKIGINTZA TAILERRA

Un escenario dentro de la cabeza: laboratorio de escritura teatral, Paco Gámezekin.

UZTAILAK 19

12:00 ETA 18:00 / TURISMO BULEGOA – ARDOAREN MUSEOA

QUIJOTES Y SANCHOS 

Gon Ramos, Luis Sorolla, Carlos Tuñón eta japoniar ezezagun bat [los números imaginarios]

Zuzendaria: **Carlos Tuñón**

Walkman bat erabiliz ibilbide gidatua da hau, Erriberriko kaleetan barrera murgiltzeko esperientzia, zeinean mundua Kixote edo Santxoren begiekin ikusiko dugun.

22:00 / LA CAVA

LA CASA CUARTEL DE BERNARDA ALBA

Federico García Lorca

CARDO PRODUCCIONES

Zuzendaria: **Fermín Cariñena**

Muntaia apurtzailea, Lorcaren testua gerran dagoen leku batetik erakusten duena, oraingo gatazkak gogora ekarriz.

UZTAILAK 20

12:00 ETA 18:00 / TURISMO BULEGOA – ARDOAREN MUSEOA

QUIJOTES Y SANCHOS 

[los números imaginarios]

22:00 / LA CAVA

MENTIRAS COTIDIANAS

Zuzendaria eta dramaturgia: **Ana Maestrojuán Guindano**

PRODUCCIONES MAESTRAS

Inolako lotsarik gabe, bizitza osatugabe batek eragin ditzakeen beldur eta frustrazioak jorratzen dituen komedia garaikidea.

UZTAILAK 21

12:00 ETA 18:00 / TURISMO BULEGOA – ARDOAREN MUSEOA

QUIJOTES Y SANCHOS 

[los números imaginarios]

22:00 / LA CAVA

EL REY TUERTO

Marc Crehuet

INEXTREMIS eta TANTTAKA

Zuzendaria: **Fernando Bernués**

Adierazpen-eskubidea, kontrol soziala, indarraren erabilera neurrigabearen etika eta moralak elkartzen diren bidegurutzak.

UZTAILAK 22

12:00 ETA 18:00 / TURISMO BULEGOA – ARDOAREN MUSEOA

QUIJOTES Y SANCHOS 

[los números imaginarios]

PROGRAMA 

19:00 / TEOBALDOEN PLAZA

MAÑAEgilea eta zuzendaria: **Manolo Alcántara**

COMPañÍA MANOLO ALCÁNTARA
Zirkuko ikuskizun zuzena eta gardena, kutxa oso astunekin eta ahalik eta indar gutxien erabiliz, arku erraldoi baten eraikitzearen inguruan.

22:00 / LA CAVA

PARA ACABAR CON EDDY BELLEGUEULE

Pamela Carter, Édouard Louisen eleberrian oinarrituta

LAJOVEN

Zuzendaria: **José Luis Arellano García**
Indarkeria, matxismo, pobrezia eta homofobiaren ingurunean zoritxarrez jaiotzeagatik biziraun behar duen haur berezi baten eraldaketa.

UZTAILAK 23

12:00 ETA 18:00 / TURISMO BULEGOA – ARDOAREN MUSEOA

QUIJOTES Y SANCHOS

[los números imaginarios]

22:00 / LA CAVA

EN UN SOL AMARILLO

Egilea eta zuzendaria: **César Brie**

TEATRO DE LOS ANDES

1998an, Bolivian izandako lurrikara batek dozenaka komunitate jarri zituen hondamenaren eta erakundeen ustelkeriaren aurrean.

UZTAILAK 24

12:00 ETA 18:00 / TURISMO BULEGOA – ARDOAREN MUSEOA

QUIJOTES Y SANCHOS

[los números imaginarios]

13:00 / SANTA MARIAREN ATARIA

MARIPOSA NEGRA

KATANGA DUB

Zarys Falcónen ahotsa, basatia eta lirikoa, zuzeneko efektu hipnotikoekin laguntzen da eta musika bertan nahasten da jamaikar dubaren estiloan.

19:30 / KONTEAREN PARKEA, TAFALLA

LA REINA DEL ARGÁ

ESTEFANÍA DE PAZ ASÍN

Narrazioa, interpretazioa, objektuen antzerkia, ilusionismoa, arte plastikoak, arkakusoan zirkua, clowna eta zirkua uztartzen dituen ikuskizun dibertigarria eta maitagarria.

22:00 / LA CAVA

HOY PUEDE SER MI GRAN NOCHE

Noemí Rodríguez

TEATRO EN VILO

Zuzendaria: **Andrea Jiménez**

Antzerki festa bat, bakarriketa komiko eta musikal bat eta autofikzio ariketa bat, 90eko hamarkadako Galiziako orkestra-abeteslari baten eta bera bezalakoak izan nahi duten alaben istorio liluragarria kontatzen duena.

UZTAILAK 26

22:00 / LA CAVA

LA VIDA VIVIDA Y POR VIVIR

José Manuel Garrido

MUSEO UNIVERSIDAD DE NAVARRA

Zuzendariak: **Tomás Muñoz** eta **Pepe Galera**

Antzerki ona bezala, La vida vivida y por vivir gatazkatik sortzen da (indibiduala, erlijioso, soziala...) eta publikoarekin partekatzen denean soilik gauzatzen da. Kasu honetan, antzerki-proposamen esperientziala eta parte-hartzailea.

UZTAILAK 27

22:00 / LA CAVA

LOS PERROS

LED SILHOUETTE eta MARCOS MORAU

Garai digitalean jaio direnak, beren garaiko seme-alabak direnez, egoera ezegonkor eta nahasi batean daude. Bi gizon dantzan, dena amaitu eta dena berriro hasi arte.

UZTAILAK 28

18:00 / ERRIBERRIKO JAUREGIA

LA MELANCOLÍA DEL TURISTA

Objektu dokumentalen antzerkia

Egileak eta aktoreak: **Shaday Larios** eta **Jomi Oligor**

OLIGOR Y MICROSCOPIA

Begiak kliskatuz agertzen eta desagertzen diren gauzen eskalako eszenatoki txiki bat: argiak eta itzalak, irudi analogikoak, mekanismo hauskorak, paperezko eta latazko miniaturak.

19:00 / ERRIBERRI

EGONALDIA: LLUEVEN VACAS

Carlos Be
BOGA-BOGA

19:00 / TAFALLA

EGONALDIA: CALLADOS PECES QUE HABITÁIS EN EL AGUA

Ion Iraizoz

LA CAJA FLOTANTE

19:30 / EZPELETA JAUREGIA, BEIRE

LA REINA DEL ARGÁ

ESTEFANÍA DE PAZ ASÍN

UZTAILAK 29

18:00 / ERRIBERRIKO JAUREGIA

LA MELANCOLÍA DEL TURISTA

OLIGOR Y MICROSCOPIA

19:30 / CENTRO CULTURAL TAFALLA KULTURGUNEA

LEAR!

Egilea eta Zuzendaria: Pablo Bujalance William Shakespeareren lanean oinarrituta

ANTONIO ZAFRA, COMPañÍA DE TEATRO INCLUSIVO

Nor da Lear? Haserrerako joera duen errege bat? Bufoi izateko hautagai bat? Ekaitzen azpian biluzik geratzea atsegin duen agure amorratu bat? Shakespeareren tragedia baten protagonista?

19:00 / ERRIBERRI

EGONALDIA: CALLADOS PECES QUE HABITÁIS EN EL AGUA

Ion Iraizoz

LA CAJA FLOTANTE

22:00 / LA CAVA

LAS AVES

Joan Yago

LA CALÒRICA

Zuzendaria: **Israel Solà**

Komedia honetan umorerik beltzena eta absurdoena diskurtso politikoenaren zerbitzura jartzen da.

UZTAILAK 30

18:00 / ERRIBERRIKO JAUREGIA

LA MELANCOLÍA DEL TURISTA

OLIGOR Y MICROSCOPIA

19:00 / BEIRE

EGONALDIA: LLUEVEN VACAS

Carlos Be
BOGA-BOGA

19:30 / JAUREGIAREN ERRONDA (IZOTZ-PUTZUA)

LA REINA DEL ARGÁ

ESTEFANÍA DE PAZ ASÍN

22:00 / LA CAVA

LAS QUE LIMPIAN

Egileak eta zuzendariak: **Areta Bolado**, **Noelia Castro** eta **Ailén Kendelman**

A PANADARÍA

Komedia garratz eta itxaropentsu honek hoteletako garbitzaileen borroka antolatua aldarrikatzen du, baita turismo-eredu jasangarri bat irudikatze beharra ere, lurraldearekiko eta jendearen bizitzarekiko adetasunezkoa izan behar duena.

UZTAILAK 31

13:00 / TURISMO BULEGOA – ARDOAREN MUSEOA

NAFAR KONPAINIEKIN TOPAKETA

Ana Artajo eta Nerea Alejosekin

Erriberriko Antzerki Jaialdian parte hartzen duten konpainia nafarrak bertako medioetako bi kazetarirekin bilduko dira.

18:00 / ERRIBERRIKO JAUREGIA

LA MELANCOLÍA DEL TURISTA

OLIGOR Y MICROSCOPIA

22:00 / LA CAVA

MALVIVIR

Álvaro Tato, Urrezko Mendeko nobela pikareskoetan oinarrituta AY TEATRO

Zuzendaria: **Yayo Cáceres**

Elena de Paz, pikarua, emakume askea, errebeldea, lapurra, burutsua, gezurtia eta iheslaria, bere garaiko konbentzio guztiei aurre egin eta bere askatasunaren prezioa ordaintzen duena, bere bizitza sekretuaz arituko zaigu.

MARABUNTA

GUILLEM ALBÀ & LA MARABUNTA



UZTAILAK 15

OSTIRALA

KARLOS III NOBLEAREN PLAZA, ERIBERRI

20:00

Clown ikuskizuna, kementsua eta energetikoa, zuzeneko musikarik onenak bultzatua. Jai bizia, zentzugabea, histrionikoa, lotsagabea eta paregabea. Orraztu nahi ez eta prakak galdu. Baina irribarrea aurpegian.

Marabunta ikuskizun gaiztoa eta magnetikoa da. Tempo matematikoak gidatzen duen esketxa. Eszenatokian, gag zentzugabeak. Abesti propioak. Kabareta. Ezerk ez du zentzurik eta dena da posible. Irten eta jolastu. Ondo pasatzea, zer gerta ere.

Taula gainean, Guillem Albà, klasea bai, baina duintasunik ez duen *frontmana*. Antiheroi enpatiko eta atsegina, berdin sirena bezala aurkezten denean edo patata frijituen gainean ibiltzen fakirrena egiten badu. La Marabunta orkestra moldakorrarekin, aurrean jartzen zaion edozein musika estilo etxekotzeko gai dena, taula gaineko jokoa biderkatzen da.

Festa geldiezin horren atzean, publikoa konplizetzat hartuta, bufoi isilduaren nahia dago: jendea zoriontsu egitea.

AKTOREAK

Guillem Albà, Edgar Gómez, Àlvar Monfort, Albert Comaleras, Martí Soler, Luisma Villegas eta Irene Garcès.

LANTALDE ARTISTIKO ETA TEKNIKOA

Zuzendaria: Guillem Albà / Testua eta musika: Guillem Albà & La Marabunta / Zuzendari musikala: Albert Comaleras / Zuzendari teknikoa eta soinuaren diseinua: Ton Mentruit / Argiztapenaren diseinua eta teknikaria: Ignasi Solé / Abestien hitzak: Pau Escribano, Anna Roig eta Tatiana Sánchez / Offeko ahotsa: Àngel Llàcer / Ekoizpen-laguntzailea: Berta García / Ekoizpen-zuzendaria: Blai Rodríguez / Banaketa (nazionala eta nazioartekoa): Marta Riera.

Marabunta Guillem Albà & La Marabuntaren ekoizpen bat da.
Iraupena: 80'

Informazio gehiago: www.guillemalba.com

📍 @GuillemAlbaOficial

📱 @GuillemAlba

📸 @guillemalbaoficial

*UZTAILAK 15

OSTIRALA

LA CAVA

22:00

Conchak berrogei urte ditu, okindegi bateko arduraduna da, ezkondua dago eta bi seme-alaba ditu eta bizimodu lasaia eta zoriontsua darama. Egun batean, sare sozialetan bere bideo intimo bat dabilela esnatzen da, 15 urte lehenago izandako bikote batekin sexu-harremanak izaten. Bideoa une horretan agertzen eta kontrolik gabe zabaltzen da bikote hori ospetsu egin delako Italian telebistako reality bati esker.

Biluztasunak, amorrak, ezintasunak eta lotsak bere gertuko guztiak ziprztintzen dituzte. 38an jaiotako landa-gizona den Ramón bere aita, hamaika urteko Gael semea edo bere senarra, Aitor, Conchari laguntzen saiatzen dena, baina epaiketa sozialari eutsi ezin diona.

Profil anonimoen atzean ezkututzen diren errukirik gabeko mezu zibernetikoak iristen dira iritzia ematera, trufatzera eta Concharen gizatasuna suntsitzera. Conchak borroka egin beharko du beldurrak, minak, sinesmenek eta ikasitakoak garaitu ez dezaten. Gainera, bere inguru sozial eta familiarak eztanda egin ez dezan ahalegindu behar da.

La Panadera kate hori gelditzeko, sinesmenak hausteko, kontzientzia hartzeko eta konfiantza eta helduleku bat emateko desioa da. Elkartzeko nahia da, besarkada bat, itzaropena.

AKTOREAK

Felipe Vélez, **Sandrá Ferrús**, Elías González, Susana Hernández eta Martxelo Rubio.

LANTALDE ARTISTIKOIA ETA TEKNIKOIA

Egilea eta zuzendaria: **Sandrá Ferrús** / Zuzendariaren laguntzailea: **Concha Delgado** / Eszenografia eta jantziak: **Elisa Sanz (AAPEE)** / Argiztapena: **Paloma Parra** / Musika eta soinu-espazioa: **Antonio de Cos** / Bideoeszena: **Elvira Ruiz** / Eszenografia- eta jantziteria-laguntzailea: **Paula Castellano** / Argazkiak: **Luz Soria** / Trailerra: **Bárbara Sánchez Palomero** / Kartelaren diseinua: **Equipo Sopa** / Banaketa: **A priori Gestión teatral**.

La panadera Centro Dramático Nacionalaren, El Silencio Teatroyren eta Iria Produccionesen arteko ekoizpena da.
Iraupena: 90'

Informazio gehiago: www.iriaproducciones.com

@IriaProd

Iria Producciones S.L.

@iriaproducciones

MADRIL

LA PANADERA

Egilea eta zuzendaria: **Sandrá Ferrús**

IRIA PRODUCCIONES, CDN eta EL SILENCIO TEATRO



TOPAKETA

“WINNIPEG, EL BARCO DE NERUDA”

Daniel Galindo eta Machús Osinagarekin



 **UZTAILAK 16**

LARUNBATA

TURISMO BULEGOA - ARDOAREN MUSEOA

13:00

Erriberriko Antzerki Jaialdiak aurten programatutako artistekin eta arte eszenikoetan espezializatutako prentsan erreferentzia diren kazetariekin jendaurreko hainbat topaketa antolatu ditu beste behin, publikoari irekiak.

Oraingoan, Machús Osinaga (RTVEko kazetaria, Arte Eszenikoetan aditua) eta Daniel Galindo (La Sala, RNEko saioaren zuzendaria) *Winnipeg, el barco de Neruda* plazaratu duen lantaldearekin arituko dira. Puça Espectaclesen, La Jarra Azulen eta Bartzelonako GREC 2020 Festivalen arteko ekoizpen bat da

Bertaratutako ikusleek Laura Martelen lana nola sortu eta garatu den jakiteko beta izango dute; hala nola, gertaera historiko zirragarri hau ezagutuko dute: Espainiako Gerra Zibileko 2.000 errefuxiatu baino gehiago Txilera iritsi zirenekoa Pablo Nerudak pleitatutako Winnipeg itsasontzian.

Artisten eta kazetarien arteko topaketetan aperitibo bat zerbitzatuko da Reyno Gourmeten kortesiaz.

Sarrera librea da lekua bete arte.



ILARGIAREN ATZEAN

Maialen Díaz

MALASPULGAS

Zuzendaria: Virginia Cervera



UZTAILAK 16

LARUNBATA

CENTRO CULTURAL TAFALLA KULTURGUNEA

19:00



Ilazki bere ama Grazianarekin, hitzen sorginarekin, bizi den bederatzi urteko neskatoda. Herriko bizilagunek kontatzen dizkioten istorioak korapilatuz, artilezko alkandorak, jakak, galtzerdiak... ehuntzen ditu.

Ilazkiren pasioa egurra lantzea da. Horregatik, bakarrik igarotzen duen denbora luzea egur zatiak zizelkatzen pasatzen du. Urtero, San Joan gaua iristen denean, Ilazki ezinezko desio bera eskatzen du: ahizpa bat izan nahiko luke denbora pasatzeko eta elkarrekin jolasteko.

Ilargiaren eta basoko mamuroen laguntzari esker, Ilazkiren nahia betetzear dago.

Basoaren erdian, munduan bakarrik geratu den zazpi urteko neska bat aurkitzen du Grazianak. Hilal du izena, eta ahizpa bat, ama bat eta familia bat behar ditu.

AKTOREAK

Izaskun Mujika, Patrizia Eneritz, Sofia Diez eta Monika Torre.

LANTALDE ARTISTIKOA ETA TEKNIKOA

Zuzendaria: Virginia Cervera / Dramaturgia: Maialen Díaz / Jantziak: María Sagüés / Argazkia: Amelia Gurutzarri / Eszenografiaren eta argiztapenaren diseinua: Luz & Fer.

Ilargiaren atzean MalasPulgas Teatroyen ekoizpen bat da. Iraupena: 55'

Informazio gehiago: www.teatromalaspulgas.com

@tetromalaspulgas

NAFARROA

FAMILIENDAKO

EUSKARAZ

 **UZTAILAK 16**

LARUNBATA

LA CAVA

22:00

“Ezaba dezala kritikak nire poesia guztia, hala nahi badu. Baina poema hau, gaur gogoratzen dudana, ezinez du inork ezabatu”.

Horrela aipatzen zuen Pablo Nerudak bere mugarririk handienetako bat: *Winnipeg* izeneko itsasontzia Frantziatik pleitatzea, Espainiako Gerra Zibileko 2.000 errefuxiatutik gora Txilera joan zitezen bizitza berri baten bila.

Neruda, Txileko gobernuak Espainiar Immigrazioarako Kontsul Berezi izendatua Frantzian, misio hau burutu zuen garai hartan Txileko Kanpo Harremanetarako ministroa zen Abraham Ortegaren konplizitatearekin. *Winnipeg* 1939ko irailaren 3an Valparaísora iritsi zenean burutu zen.

Antzerki-muntaia honek askatasunaren eta itxaropenaren aldeko kantua izan nahi du eta, gaur egungo begiradatik, "Nerudaren seme-alabak" deitzen diren erbestera horien guztien historiari ahotsa eman nahi dio, antzeko beste batzuekin gertatu ez bezala, Espainiar oroimen hauskorrean kulunkan eta galdurik geratu den pasarte historikoa berreskuratuz.

AKTOREAK

Laia Alberch, Laura María González, Martí Salvat eta Edu Tudela.


LANTALDE ARTISTIKOA ETA TEKNIKOA

Dramaturgia: **Laura Martel** / Zuzendaria: **Norbert Martínez** / Ekoizpen-zuzendaria: **Óscar García** eta **Recuenco** / Soinu-espazioa: **Nacho López** / Eszenografia: **Anna Tantull** / Jantziak: **María del Mar Grañena** / Argiztapena: **Yuri Plana** / Ikus-entzunezkoen diseinua: **Clara Guixé** i **Viedma**, **Núria Planes Ilull** eta **Jordi Soler Quintana** / Arte-kontzeptua: **Óscar Climent** / Zuzendariaren laguntzailea: **Diana Díaz** eta **Eduard García Oñate** / Ekoizpen-laguntzailea: **Marina Guarch** / Laguntza teknikoa: **Jofre Toledano** / Argazkigintza: **Cristina Raso** / Bideogintza: **Arnau Macià e Iuris** / Diseinu grafikoa: **Mancha**.

Winnipeg, el barco de Neruda Puça Espectaclesen, La Jarra Azulen eta Bartzelonako GREC 2020 Festivalen arteko ekoizpen bat da.

Iraupena: 65'

Informazio gehiago: www.lapusa.com

 @pusaespectacles

 KATALUNIA

WINNIPEG, EL BARCO DE NERUDA

Laura Martel

Zuzendaria: **Norbert Martínez**

PUÇA ESPECTACLES, LA JARRA AZUL eta GREC 2020



TOPAKETA

AGURTZANE INTXAURRAGA REKIN (“LA TARARA”) ETA SANDRÁ FERRÚSEKIN (“LA PANADERA”)

Daniel Galindo, Machús Osinaga eta Raúl Losánezekin

Kazetariak eta profesionalak "Emakumeak eta eszena" gaia izango dute hizpide.



 **UZTAILAK 17**
IGANDEA

TURISMO BULEGOA - ARDOAREN MUSEOA, ERIBERRI
13:00

Saio honetan, Machús Osinaga (RTVEko kazetaria, Arte Eszenikoetan aditua) eta Daniel Galindo (*La Sala*, RNEko saioaren zuzendaria) Raúl Losánezekin (*La Razón* egunkariako antzerki kritikaria) arituko dira.

Hirurak Agurtzane Intxaurreaga Hika Teatroaren *La Tarararen* zuzendariarekin eta Sandra Ferrús Centro Dramático Nacionalen, Açafrao Produccionesen, El Silencio Teatrotan eta Iria Produccionesen arteko ekoizpena den *La Panaderaren* egile eta zuzendariarekin mintzatuko dira.

Agurtzane Intxaurreaga Informazio Zientzietan lizentziaduna da eta prestakuntza zabala du dantza garaikidean, kantuan eta arte dramatikoan. 1989tik zuzentzen duen eta sortu zuen Hika Teatroaren buru izanik, besteak beste *Gazte*, *Seda*, *Tonbola*, *Txarriboda*, *Koaderno* *Zuri*, *Hitzak*, *Aitarekin Bidaian*, *Sagartu* eta animaziozko film onenaren Goya sarirako izendatutako *Teresa* eta *Galtzagorri* film luzea zuzendu ditu.

Bestalde, Sandra Ferrús birritan dugu aurtengo jaialdian: *La Tararako* aktoreen artean eta *La Panaderaren* egile, zuzendari eta interprete gisa. Prestakuntza zabalarekin, Teatro de la Abadian, Teatro Españolen, Centro Dramático Nacionalean edo berak idatzi eta zuzendutako *El Silencio de Elvisen* egindako aktore lanak nabarmendu behar dira. Honekin Torrejón de Ardozeko XXII. Eszena Emakume Zuzendarien Lehiaketako lehen saria eta José María Rodero sari berezia jaso zituen. Gainera, Ferrús bi Max Sari irabazteko hautagaia da aurten *La Panadera* lanagatik, Errebelazio Egile Onenaren eta Aktore Onenaren atalean.

Artisten eta kazetarien arteko topaketetan aperitibo bat zerbitzatuko da Reyno Gourmeten kortesiaz.

Sarrera librea da lekua bete arte.



LA TARARA

Josi Alvarado

Zuzendaria eta dramaturgia: **Agurtzane Intxaurre**

HIKA TEATROA

 **UZTAILAK 17**
IGANDEA
LA CAVA
22:00



70eko hamarkadan, Bilboko SanFran auzoan, Rosa hazi zen, Liszt eta biolina jotzen laguntzen dioten beste musikagile batzuk ikusten omen dituen neska biolinista. "La Tarara" izeneko prostitutat bere mamuen aurkako borrokan laguntzen dio.

Rosa heldua eta Rosa txikia nahasten dira ia susmatu gabeko sekretu baten gainean jirabiraka dabiltzan oroitzapenen joan-etorri batean: sutea, errautsak eta tapaki babesle bat bezala hedatzen den ahantzura. Tiradera batean aurkitutako maitasungutun batzuk bere oroimen hautsia osatzen duten arte. Ordura arte ikarari tarterik uzten ez zion oroimena, musikaz eta edertasunez gainezka zegoelarik.

Poesiaren dardarak astindutako thriller bokazioa du testuak. *La Tarara* hainbeste haurren kontatu gabeko istorioa da, haragiaren hondora egindako bidaia inizatiko eta adiktiboa. Barkamenari buruzko ipuin bat eta desberdintasunari egindako kantu bat, non Txanogorritxok, azkenean, otsoei biolina jotzen dien.

AKTOREAK


Sandrá Ferrús, Jurdana Otxoa, Kepa Errasti, Eneritz Artetxe, José Cruz Gurrutxaga eta Adrián García de los Ojos.

LANTALDE ARTISTIKOA ETA TEKNIKOA

Zuzendaria eta dramaturgia: **Agurtzane Intxaurre** / Egilea: **Josi Alvarado** / Euskarazko itzulpena: **Arantxa Iturbe** / Zuzendariaren laguntzailea: **Miren Gojenola** / Eszenografiaren eta jantzien diseinua: **Ikerne Jiménez** / Eszenografiaren eraikuntza: **Readest Decorados** eta **Sfumato Pintura Escénica** / Eszenografia-laguntzailea: **María José Villela** / Jantzigintza: **KKUM Inma Gómez** / Jantzien girotzea: **Taller María Calderón** / Zuzeneko musika: **Adrián García de los Ojos & Jurdana Otxoa** / Argiak: **Xabier Lozano** / Irudi grafikoa: **Santos Bregaña. Laia** / Bideogintza: **Acrónica producciones** / Argazkigintza: **David Bernués & Dani Blanco** / Ekoizpen-zuzendaritza eta ekoizpen exekutiboa: **HIKA Teatro** / Tresneria: **Acrónica Producciones** / Komunikazioa: **Teresa Sala** / Administrazioa: **Asun Etxeberria** / Banaketa: **Hika Teatro**.

La Tarara Hika Teatroaren eta Arriaga Antzokiaren arteko ekoizpen bat da.
Iraupena: 80'

Informazio gehiago: www.hikateatroa.eus

 @hikateatro

ANTZERKIGINTZA TAILERRA

UN ESCENARIO DENTRO DE LA CABEZA: LABORATORIO DE ESCRITURA TEATRAL

Paco Gámezekin

 UZTAILAK 18, 19, 20, 21 ETA 22

ERRIBERRIKO KULTUR ETXEA.

11:00-14:00



Ba al da antzezlan bat astebetean idazterik?

Ziurrenik ez, baina dramaturgia berrien tailer honetan parte hartuko duten pertsonak ezinezko horrekin jolastuko dute. Dramaturgia askatasunetik eta norberaren burua epaitu gabe jorratuko dute, blokeo geldiarazleak saihesten saiatuz.

Noiz hasten da benetan obra idazten?

Antzerki-idazketaren sortze-prozesuaren faseak landuko dituzte, abiapuntutik piezaren erakusketaraino (nahiz eta obra oso bat amaitu ez).

Izan bedi antzerkigintzako Frankensteinen laborategi bat, erabili eta botatzeko materialarena, baina baita proiektu posible eta desiratuen ere.

Antzerkia idaztea hitzak elkartzea al da?

Antzerkigileak, etxeko bakardadetik sortzen badu ere, eszenatokian, publikoarekiko komunikazioan eta aktoreen gorputzean izan behar du burua.

Lan-ibilbidea / Tailerraren dastatze-menua.

- Hasiera posibleak: non aurkitu inspirazioa? Historia pertsonala, albisteak, klasikoak, nukleo tematikoa, irudiak...
- Alegia (halakorik badago) edo egitura-eskaleta posibleak. Eskeleto dramatikoaren prozesu esperimentalak eta doikuntzak.
- Iturriak, metaketa eta elkarriketa beste antzerki- edo arte-lan batzuekin. Inspirazio tematikoak eta formalak. Besterenaz

jabetzea vs. intimitatearen unibertsalizazioa. Gure piezaren hizkuntza; eremu lexikoa edo poetikoa.

- Egitura edo jostailua. Zer forma izan dezake obra honek? Zein da kontatu nahi duguna kontatzeko modurik onena? Oinarriko egiturak haustea. Originaltasuna eta berezitasuna forma klasikoaren aldean. Asmakizunak, amildegiak eta abarrekoak.
- Eszenaren hausturak, desblokeatze-jolasak eta materialaren balizko puskaketak. Ustekabearekin, akatsarekin, mugekin, topikoarekin, kontrakoekin eta harridurarekin jolastea.
- Pertsonaien edo aktoreen gorputzak, zentzumenak, beharrak irudikatzea. Inprobisazioak, bat-batekotasanak... Egilea besterenaren bideratzaile gisa.
- Desblokeatzeko eta idazketa libreko ariketak.
- Materiala beste irakurle/publiko batzuekin alderatzea. Besteren eta norberaren zuzenketak. Kontrolrik eta zuzenketarik eza vs. zuzentzaile/zentsore basatia.
- Zerk balio digu eta zer botatzen dugu? Materiala birplanteatzea. Doikuntzak eta sortutako materialen lagina.

ANTZERKIGINTZA TAILERRA

UN ESCENARIO DENTRO DE LA CABEZA: LABORATORIO DE ESCRITURA TEATRAL

Paco Gámezekin

 UZTAILAK 18, 19, 20, 21 ETA 22

ERRIBERRIKO KULTUR ETXEA.

11:00-14:00

IZEN-EMATEA

Mintegi honek 15 plaza eskaintzen ditu antzezle profesional, zuzendari eta antzerkigileentzat. Izena eman ahal izango da plazak bete arte.

Horretarako, bidali e-posta bat programasydifusion@navarra.es helbidera, **izena, bi abizen, helbidea, NAN, telefono mugikorra**, harremanetarako **helbide elektronikoa** eta matrikularen zenbatekoa ordaindu izanaren **egiaztagiria** adieraziz.

Matrikula ordaindu dutenen artean hurrenkera kronologiko zorrotzean emango da izena mintegian.

Ordainketa, 40 eurokoa, banku-transferentzia bidez egin beharko da ES38 2100 3693 2122 00547110 kontura. Kontu horren titularra Kultura Zuzendaritza Nagusia da, eta kontzeptuan **PACO GÁMEZEN TAILERREKO MATRIKULA** eta ikastaroa egingo duenaren **izen-abizenak** adierazi beharko dira.

Uztailaren 22an La Cavan taularatuko den *Para acabar con Eddy Bellenguete* ikuskizunerako sarrera eta klaseak barne hartzen ditu prezioak. Mintegian parte hartzen dutenen kontu egongo da Erriberrirako garraioa.

Norbaitek izen-ematea ordaindu badu eta plazak bete badira, matrikularen zenbatekoa itzuliko zaio.

PACO GÁMEZ

Ingeles Filologian eta Testu Interpretazioan lizentziaduna da Sevillako ESADen. Ikuskizun Zientzietako graduondoko ikasketak egin ditu. Antzerkigile, aktore, zuzendari eta irakasle gisa lan egiten du.

Izen handiko sariak jaso ditu. Adibidez, Lope de Vega saria, Teatro Españolaren Komedia Lehiaketa, Calderón de la Barca saria edo Antzerki Egileen Elkartearen Jesus Campos saria. Halaber, finalista izan da Max sarietan *Egile Berri Onena* bezala, SGAERen LAM sarietan, Haur Antzerkiko SGAE sarian, Jesús Domínguez sarian...

Jatorrizko testuen artean, nabarmentzekoak dira *Inquilino (Numancia 9, 2º A)*, *Katana* edo *El suelo que sostiene a Hande* eta, bere bertsioen artean, *Eneida: playlist para un continente a la deriva* edo *Las Calatravas*.

Bere lanak estreinaldien atzean izen handiak izan dira: Centro Dramático Nacional, Teatro Real, Teatros del Canal, Teatro Circo Price, LaJoven, Pavón Kamikaze, Washingtono Gala Theater edo Teatro de la Zarzuela. Epe laburrean Fernán-Gómez antzokian estreinatuko du eta Arriaga Antzokiak, Gasteizko Principal Antzokiak eta Donostiako Victoria Eugenia Antzokiak ekoitziko dute.

Bere testuak ingelesera, frantsesera, alemanera, italierara, portuguesera, euskarara, errumanierara eta katalanera itzuli dira. Gámezek egile egoiliarra bezala ere idatzi du: Bartzelonako Sala Beckett aretoan, SGAeko laborategietan, INAEMen edo Euskadiko Antzerkigintza Berriak programan.

Gainera, Paco Gámez Lope de Vega 2021 Sariduna da eta Teatro Españoloko II. Nazioarteko Komedia Lehiaketaren irabazlea, iaz ere.

*** UZTAILAK 19, 20, 21, 22, 23 ETA 24**

IRTEERA: ERIBERRIKO TURISMO BULEGOA – ARDOAREN MUSEOA

12:00 eta 18:00

Walkman bat erabiliz ibilbide gidatua da hau, Erriberriko kaleetan barrena murgiltzeko esperientzia, zeinean mundua Kixote edo Santxoren begiekin ikusiko dugun.

Walkman bat eta entzungailu batzuk jasoko dituzu honetarako. Hauek izango dira zure zaldia ibilaldian zehar. Eleberria bezala, esperientzia anakroniko, analogiko eta fisiko baten aldeko apustua da. 90 minutuko kasete-zinta batean erregistratutako antzezlanak da eta higitzen joango da, zaldun ibiltariaren gorputza bezala.

Walkmana, "ibiltzen den gizona" bezala, zure zelabere partikularra izango da, zeharkaldirako zure Rocinantea.

Quijotes y Sanchos antzerkira itzultzea da, zu armatu eta mundu berri batean ibiltzeko. Erriberriko kaleetan zehar noraezean ibiliz gero, Gaztelako edo Tokioko zelaiak balira bezala, "beste bat izateko" aukera ematen du. Entzule gisa, zure ibilbidea zein den erabakiko duzu, zein izango den zure noraeza pertsonala eta intimoa bideetan zehar. Beraz, egiten duzun bakoitzean desberdina izango da.

Cervantesen *Kixotea* Espainiako literaturako eleberririk garrantzitsuenak da eta, Bibliaren ondoren, argitaratuena eta itzuliena. Beharbada, ez zenuen inoiz osorik irakurri. Ez da ezer gertatzen. Ez duzu jakin behar zer gertatzen den. Lehen zatian zentratu gara, 1605ean argitaratua, eleberraren mekanismoak eta prozedurak itzultzeko, eta hamar urteren buruan bigarren zatiarekin itzuliko garela zin egiten dugu, Cervantesek egin zuen bezala. Orain bere galderak gureak dira:

"Zer da Kixote edo Santxo izatea gaur egun? Zer nortasun daukat eta zein izan nezake? Zer da laguntzea eta nola egiten dugu? Zer mundu zeharkatzen dugu eta nola alda dezaket nire begiradaren bidez?"

Kixotearen hitzaurrean, Cervantesek lagun bati galdetzen dio: "Nola bete nire beldurraren hutsunea? Nola bilakatu argitasuna nire nahasmenaren anabasa?"

Guk esango dizuegu: "Jarrai dezagun ibiltzen".

AKTOREAK (AHOTSAK)

Jesús Barranco, Fran Cantos, Paloma García Consuegra, Pablo Gómez-Pando, Irene Domínguez, Alejandro Pau, Gon Ramos, Patricia Ruz, Nacho Sánchez, Irene Serrano, Luis Sorolla, Carlos Tuñón eta japoniar ezezagun bat.

LANTALDE ARTISTIKOA ETA TEKNIKOAK

Zuzendaria: Carlos Tuñón / Dramaturgia: Gon Ramos, Luis Sorolla, Carlos Tuñón eta japoniar ezezagun bat / Ekoizpena: [los números imaginarios], Bella Batalla eta el Teatro de La Abadía / Ekoizle exekutiboak: Nacho Aldeguer / Ekoizpen-zuzendaria: Rosel Murillo / Zuzendariaren laguntzailea: Mayte Barrera / Soinuaren diseinua eta Diseinu Grafikoa: JUMI / Soinua: Titxu Vélez eta JUMI / Plastika eta Errejidoak: Rosel Murillo eta Mayte Barrera / Plastika-laguntzailea: Antiel Jiménez / Ikus-entzunezkoak: Ales Alcalde / Argazkia: Luz Soria / Komunikabideak eta komunikazioa: Amanda H C (Proyecto Dúas) / Prentsa: Josi Cortés / Banaketa: Caterina Muñoz (Caterina producciones)

Quijotes y Sanchos Los números imaginariosen, Bella Batallaren eta Teatro de La Abadiaren arteko ekoizpen bat da.

Iraupena: 120' ggb.

Gehienez 20 pertsonako talde batentzako jardura.

📍 @losnumerosimaginarios

📍 MADRIL 🎭 ESPERIENTZIA

QUIJOTES Y SANCHOS: UNA TRAVESÍA AUTOGUIADA (1º PARTE)

Gon Ramos, Luis Sorolla, Carlos Tuñón eta japoniar ezezagun bat

[los números imaginarios]

Zuzendaria: Carlos Tuñón



LA CASA CUARTEL DE BERNARDA ALBA

Federico García Lorca

Zuzendaria: **Fermin Cariñena**

CARDO PRODUCCIONES



 **UZTAILAK 19**
ASTEARTEA
LA CAVA
22:00

Senarra hil ondoren, Bernarda Albak zortzi urteko dolua ezarri zuen bere etxean, kanpoko munduarekin harremana moztuz. Bere bost alabek beren itxaropenak, grinak eta desirak lurperatu beharko dituzte. Orduan, herriko gizonik erakargarrienak zaharrenarekiko interesa duenaren itxura egiten du, haren ondasunagatik, eta ahizpen arteko elkarbizitza hondatzen da.

Muntaia apurtzailea, Lorcaren testua gerran dagoen leku batetik erakusten duena, oraingo gatazkak gogora ekarriz. Garaiko gizarte itogarriaren erradiografia ere bada, eta arreta berezia jartzen du genero-ikuspegian eta memoria historikoan.

AKTOREAK

Marta Juániz, María Álvarez, Leire Arraiza, Montse Zabalza, Iratxe García, Laura Villanueva, Eva Azpilicueta, Leire Lareki, Asun Abad eta Jaione Urtasun.

LANTALDE ARTISTIKOA ETA TEKNIKOA

Zuzendaria: **Fermin Cariñena** / Egilea: **Federico García Lorca** / Egokitapena: **Fermin Cariñena** / Eszenografia: **Eskuartean** / Jantziak: **Aiora Ganuza** / Musika: **Eskuartean** / Argiztapena: **Fran Marcen** / Soinua: **Fran Marcen**.

La casa cuartel de Bernarda Alba Cardo Produccionesen ekoizpen bat da.
Iraupena: **90'**

Informazio gehiago: www.cardofilms.com

 **UZTAILAK 20**

ASTEAZKENA

LA CAVA

22:00

Hitzordu bat, lau lagun, ardoa, ardo dezente, ardo asko. Horiek izango dira komedia honen eragileak, non egiak gezurra dirudien, eta ez dakigun gezurra egia ote den.

Inolako lotsarik gabe, bizitza osatugabe batek eragin ditzakeen beldur eta frustrazioak jorratzen dituen komedia garaikidea. Bere pertsonaiak ezagunak egiten dira gurea bezalako gizarte batean; pertsona konplexuak, zitalkeriaz eta grina handiz beteak.

Denak gezurretan ari dira. Edo ez? Ohiko gezurrak dira, egunerokotasuna errazten duten gezurrak, ondoriorik ez duten gezurrak... edo badute?

Hain eremu lohitsu mugitzen dira Mateo, Marcos eta Juana, hiru pertsona arrakastatsu zera egiten dutenak: hitz eta edan, edan eta hitz egin jakiten, sentitzen eta pairatzen dutenari buruz. Ironia, sarkasmoa, gezurrak eta egiaren bat edo beste bizi dira inoiz ez dagoen Lucasek sortutako mikrokosmos honetan. Pasioak azal-azalean eta gezurra ahoan gertatzen dira eguneroko gezur hauek. Juanak dioen bezala: "Bizitza gezurrik gabe —besteenganakoak zein gureganakoak— ezinezkoa litzateke".

Gure miseriez barre egiteko beharretik sortutako obra; hutsune existenzialez beteta eta beldurrez gainezka dauden diseinuzko miseriez.

AKTOREAK


Asier Hormaza, Marta Juániz eta Ángel García Moneo.

LANTALDE ARTISTIKOA ETA TEKNIKOA

Zuzendaria eta dramaturgia: **Ana Maestrojuán** / Figurinak: **Edurne Ibáñez** / Soinu-espazioa eta konposaketa: **Gorka Pastor** / Eszenografia eta argiztapena: **Koldo Tainta** eta **Producciones Maestras** / Birako teknikaria: **Patxi Larrea** / Diseinu grafikoa: **El Colectivo** / Ekoizle exekutiboa: **Ángel García Moneo**.

Mentiras cotidianas Producciones Maestrasen ekoizpen bat da.
Iraupena: 75'

Informazio gehiago: www.produccionesmaestras.com

 @Producciones Maestras

 NAFARROA

MENTIRAS COTIDIANAS

Zuzendaritza eta dramaturgia: **Ana Maestrojuán Guindano**

PRODUCCIONES MAESTRAS



EL REY TUERTO

Marc Crehuet

Zuzendaria: **Fernando Bernués**

INEXTREMIS Y TANTTAKA

 **UZTAILAK 21**
OSTEGUNA
LA CAVA
22:00



Bi lagunek, Lidiak eta Sandrak, denbora luze daramate elkar ikusi gabe eta euren bikotekideak ezagutzeko afari bat antolatzea erabaki dute. David, istiluen aurkako polizia bat, eta Ignacio, manifestazio batean gomazko bola batek jota begi bat galdu duen gizarte-dokumentalista bat dira. Politikari baten diskurtsoek animatuko dute, gainera, afaria.

Horrela hasten da sinesmenen hauskortasunari, rol sozialen izaerari eta egiaren bilaketari buruzko komedia garratz bat.


*El rey tuerto*k adierazpen-eskubidea, kontrol soziala, indarraren erabilera neurrigabearen etika eta moralak elkartzen diren bidegurutzean jarri nahi gaitu.

AKTOREAK

Txori García Uriz, Iratxe García Uriz, Leire Ruiz, Ion Barbarin eta Oier Zuñiga.

LANTALDE ARTISTIKOA ETA TEKNIKOA

Zuzendaria: **Fernando Bernués** / Egilea: **Marc Crehuet** / Eszenografiaren diseinua: **Fernando Bernués** / Jantziak: **Ana Turrillas** / Argiztapenaren diseinua eta gauzatzea: **David Bernués (Acrónica Producciones)** / Ekoizpena: **Ane Antoñanzas**.



El rey tuerto InExtremisen eta Tanttakaren arteko ekoizpen bat da.
Iraupena: **80'**

Informazio gehiago: www.inextremisteatro.com

UZTAILAK 22

OSTIRALA

TEOBALDOEN PLAZA
ERRIBERRI

19:00

Hasieratik, zirkuko ikuskizun zuzen eta garden honek bere asmoak eta helburuak azaleratzen ditu: arku erraldoi bat eraikitzea, kutxa oso astunekin eta ahalik eta indar gutxien erabiliz, antzinako baina denboraz kanpoko teknologia prekarioren laguntzarekin.

Ikuskizunaren gakoa asmamena da.

Alcántarak, artista autodidakta eta artisaauak, zirkua jakin-minetik, iradokizunetik eta jolasetik nola ulertzen duen jakiteko erakusgarri berri bat, betiere egitura berritzaileak erabiliz eta alderdi bisuala zainduz.

AKTOREAK

Manolo Alcántara eta Joan Trilla.

LANTALDE ARTISTIKOA ETA TEKNIKOAK

Egilea eta zuzendaria: **Manolo Alcántara** / Jantzien diseinua eta jantzigintza: **Rosa Solé** / Eszenografiaren diseinua eta eraikuntza: **Manolo Alcántara** / Soinuaren diseinua: **Oriol Planas** / Argiztapenaren diseinua: **Ivan Tomasevic** / Kudeaketa eta ekoizpena: **Clàudia Saez** / Ekoizlea: **Manolo Alcántara** / Ekoizpen-sostengua: **La Destil·leria** / Banaketa nazionala: **Portal71** / Kataluniako eta nazioarteko banaketa: **AlaPista**.

Maña CIA. Manolo Alcántararen ekoizpen bat da, La Colònia Vidalen laguntzarekin eta ICEC-Generalitat de Catalunyaaren sostenguarekin.

Iraupena: 60'

Informazio gehiago: www.ciamanoloalcantara.com

 KATALUNIA

MAÑA

Egilea eta zuzendaria: **Manolo Alcántara**

COMPAÑÍA MANOLO ALCÁNTARA




PARA ACABAR CON EDDY BELLEGUEULE

Pamela Carter, Édouard Louisen eleberrian oinarrituta

Zuzendaria: José Luis Arellano García

LAJOVEN



UZTAILAK 22
OSTIRALA
LA CAVA
22:00

Gerardo Verari eskainia

“Gaur benetako gizona izango naiz”

Édouard Louis eta Eddy Bellegueule pertsona bera dira, eta ez dira.

Para acabar con Eddy eraldaketa baten istorioa da: indarkeria, matxismo, pobrezia eta homofobiaren ingurunean zoritxarrez jaiotzeagatik biziraun behar duen haur bereziarena. Onartua izateko bere benetako izaera ezkutatu behar duen haur sentibera eta urduriarena. Saihestezina dirudien gehiegikerien eta umiliazioen patua ekiditeko benetazko gizon baten itxura hartzen ahalegintzen den nerabearena.

Baina Édouard da, zintzotasun gordin eta argitsu batekin, Eddyren istorioa kontatzen diguna, bere sufrimenduarena eta bere askapenarena, azkenean inguru zapaltzaile horretatik ihes egitea lortzen duenean.

Eddy Bellegueuleren amaiera Édouard Louisen hasiera delako, bere belaunaldiko idazlerik bikainenetakoarena.

Pamela Carterrek egindako eleberriaren egokitzapen hau 2018an estreinatu zen Londresko Unicorn Theatre antzokian.

Gerardo Vera izan zen proiektuaren aitabitxia sortu zenetik eta hau izango zen LaJoven zuzenduko zuen lehen aldia. Zendu ondoren, José Luis Arellano bere ikaslea, izan da Espainiako antzerkiaren maisu handienetako baten oroimenari eskainitako obra honen zuzendaria.

AKTOREAK

Julio Montañana Hidalgo eta **Raúl Pulido Jordá**.

LANTALDE ARTISTIKOA ETA TEKNIKOAK

Zuzendaria: **José Luis Arellano García** / Egilea: **Pamela Carter, Édouard Louisen** eleberrian oinarrituta / Itzulpena: **José Luis Collado** / Bideo-eszena eta eszenografia: **Álvaro Luna** / Argiztapena: **Juanjo Llorens** / Jantziak: **Ikerne Giménez** eta **Lua Quiroga Paúl** / Soinu-espazioa: **Alberto Granados** / Eszena-mugimendurako laguntza: **Andoni Larrabeiti** / Ekoizpen-zuzendaria: **Olga Reguilón Aguado** / Zuzendari teknikoa: **Paloma Cavilla** / Errejidorea: **Daniel Villar** / Zuzendari-laguntzailea: **Paco Gámez** / Argiztapen-laguntzailea: **Rodrigo Ortega** / Eszenografia-laguntzailea: **Lua Quiroga Paúl** / Bideo-eszena-laguntzailea: **Joel Valiente Vasco** / Jantziteria- eta jantzigintza-laguntzailea: **Gracia Collado Collado** / Bideo-eszenako praktikak: **Alba Trapero** / Zuzendaritzako praktikak (Erasmus): **Christina Eleftheriadou** / Bideo-eszenako kamera: **David Girón** / Argazkigintza: **Ilde Sandrin** / Eszenografiaren eraikuntza: **MAY Servicios** / Sofa-giroetzea: **Cristina Collado Collado, Gracia Collado Collado** eta **Juan Carlos Rodríguez** / Ekoizpena: **Paloma Rodrigo** eta **Daniel Villar** / Publikoan kudeaketa eta administrazioa: **Rocío de Felipe** / Komunikazioa: **María Díaz, Laura Ginestar** eta **Pedro Sánchez**.

Para acabar con Eddy Fundación Teatro Jovenen ekoizpen bat da.
Iraupena: 80'

Informazio gehiago: www.lajoven.es

*UZTAILAK 23

LARUNBATA

LA CAVA

22:00

1998an, Bolivian izandako lurrikara batek dozenaka komunitate suntsitu zituen. Aiquile, Totora, Mizque hiriak edo Antakawa, Loma eta beste komunitate nekazari asko jo zituen sismoak eta, ondorioz, etxe hondatuak eta ehunka zauritu edo hildako utzi zituen.

Nazioarteko komunitateak era guztietako laguntza bidali zuen, ia 30 milioi dolarretakoa. Boliviako gobernuak, Defentsa Zibilaren eta armadaren bitartez, laguntzaren banaketa eta berreraikuntza antolatu zituen. Handik gutxira, ustelkeria, lapurretak, funtsen desbideratzea eta abusuak aipatzen zituzten istorioak zabaltzen hasi ziren.

Teatro de Los Andesek, obra honetan islatzen diren testigantza harrigarri eta etsituak jasotzeko, leku horietara bidaiatzeaz gain beste sismo batzuen historia aztertu zuen.

Gehiegikeria eta lapurretak, batez ere agintarien aldetik, etengabeak izan dira Latinoamerikako sismoetan. Badirudi lurrikara bakoitzean elkarrekin bizi direla eskuzabaltasuna eta berekoikeria. Zitalkeria eta elkertasuna.

AKTOREAK

Lucas Achirico, Gonzalo Callejas, Alice Guimarães eta Dario Torres.

LANTALDE ARTISTIKOA ETA TEKNIKOAK

Zuzendaria eta egilea: César Brie / Musika: Cergio Prudencio, Luzmila Carpio, Sipe Sipeko Bolero de Caballería, Sanos y Fuertes ereserkia / Moldaketa musikalak: Lucas Achirico eta Pablo Brie / Eszenografia: Lucas Achirico eta Gonzalo Callejas / Jantziak: Soledad Ardaya eta Danuta Zarzyka / Eszenako tresneria: Gonzalo Callejas / Argi-teknikaria: Ariel Hurtado / Soinu-teknikaria: Fabiola Mendoza / Zuzendariaren laguntzailea: Mercedes Campos / Ekoizpena: Teatro de los Andes.

EN UN SOL AMARILLO

Egilea eta zuzendaria: César Brie

TEATRO DE LOS ANDES



En un sol amarillo Teatro de Los Andesen ekoizpen bat da.
Iraupena: 70'

Informazio gehiago: [@teatrolosandes](#)

[BOLIVIA](#)

MARIPOSA NEGRA

KATANGA DUB

 **UZTAILAK 24**

IGANDEA

SANTA MARIAREN ATARIA

13:00

FemKultur jaialdian aurkeztu zen izen bereko opera esperimentalean oinarrituta, bereziki jaialdietarako egokitutako ikuskizun honek cumbia, bullerengue, funk, elektronika, dantza, narrazioa eta performancea nahasten ditu.

Zarys Falcónen ahotsa, basatia eta lirikoa, zuzeneko efektu hipnotikoekin laguntzen da eta musika bertan nahasten da jamaikar dubaren estiloan.

Giro trinko eta liluragarri, magiko eta aldarrikatzaile honen bitartez ezagutuko dugu esklabotzatik ihes egin zuten afrikar jatorrizko emakumeen esperientzia: zimarroiarena.

Kolonbiako Karibeko herritarrek gordetzen duten kultura-esperientzia Europako hirietan bizi diren emakume migratuen egungo bizipenekin nahasten da.

Haien bizitzatik eta zauritik, arte hau.

LANTALDE ARTISTIKOA

Zarys Falcón, losu Marti eta Galina Rodríguez.

Mariposa negra Katanga Duben ekoizpen bat da.
Iraupena: 60'

Informazio gehiago: www.katangadub.com

 @katangadub

 @katangadub

 NAFARROA  MUSIKA

LA REINA DEL ARGA

ESTEFANÍA DE PAZ ASÍN



UZTAILAK 24 IGANDEA 19:30
KONTEAREN PARKEA, TAFALLA

UZTAILAK 28 OSTEGUNA 19:30
EZPELETA JAUREGIA, BEIRE

UZTAILAK 30 LARUNBATA 19:30
JAUREGIAREN ERRONDA (IZOTZ-PUTZUA), ERIBERRI

Ikuskizun dibertigarria, historikoa, hurbila, maitagarria... hainbat arte, teknika eta hizkuntza artistiko uztartzen dituen: narrazioa, interpretazioa, objektuen antzerkia, ilusionismoa, arte plastikoak, arkakusoen zirkua, clowna eta zirkua.

Zirkuko arteen historiaz ari zaigun ikuskizun samurrak Remigia Echarren, *Argako Erregina*, ezagutarazten digu.

Remigia hil zela 100 urte bete diren honetan, Estefanía de Paz Asinek funanbulistari buruz liburutan, egunkaritan, dokumentutan eta artxibotan, hemerotekatan, fototekatan... aurkitutakoa kontatzen digu.

Bere historiarekin liluratuta, artxibatutako memoriak datuak emateari utzi dion horretan bilatu eta aurkitu du, eta sortzen eta eraikitzen jarraitu du aparteko emakume hau ezagutzen laguntzeko.

Gora eta gora beti Remigia Echarren!

AKTOREAK

Estefanía de Paz Asín

LANTALDE ARTISTIKOA ETA TEKNIKOA

Egilea: **Estefanía de Paz Asín** eta **Kiko Ortega** / Arte plastikoak: **Estefanía de Paz Asín** / Argazkia: **Kiko Ortega** / Musika eta soinu-espazioa: **Gorka Pastor** / Argiztapena: **Óscar García Valoria** / Bideoa: **Jesús Iriarte** / Ekoizpen-laguntzailea: **Garbiñe Navarro Rodríguez** eta **Noemí Irisarri** / Komisarioa: **Ariadne Iribarren** / Diseinu grafikoa: **Minimizán**.

La reina del Arga Estefanía de Paz Asinen ekoizpen bat da.
Iraupena: 50'

Informazio gehiago: www.estefaniadepazasin.com

@Tefi

@estefaniadepazasin

NAFARROA

FAMILIENDAKO

HOY PUEDE SER MI GRAN NOCHE

Noemí Rodríguez

Zuzendaria: **Andrea Jiménez**

TEATRO EN VILO



UZTAILAK 24
IGANDEA
LA CAVA
22:00

Antzerki festa bat, bakarriketa komiko eta musikal bat eta autofikzio ariketa bat, 90eko hamarkadako Galiziako orkestra-abeteslari baten eta bera bezalakoak izan nahi duten alaben istorio liluragarria kontatzen duena.

Aktore batek eta bere ahizpa musikariak ahots ugari zabaltzen dituzte eszenatokian, iraganerako bidaia zirraragarria egiteko, exotismoz betetako mundu batera, egun batean izan nahi genuenaren eta azkenean garenaren arteko nahaste bitxi hori ulertzeko asmoz. Jada ez dagoenaren, izan zitekeenaren eta izan ez zenaren ospakizun bat, galtzaileei, beti bere momentuaren zain egoten direnei egindako kantu bat.

Istorio zirraragarri bat, kontakizun lasgarri bat, zeinean Teatro En Vilok bere antzerki poetikaren etorri guztia, lotsagabekeria, samurtasuna eta umorea berriro zabaltzen duen, apartekoaren eta arruntaren artean, balentriaren eta porrotaren artean, izateko betebeharraren eta benetako zorientasunaren artean borrokatzen den emakume baten borrokara hurbiltzeko.

AKTOREAK

Noemi Rodríguez eta **Darlene Rodríguez**.

LANTALDE ARTISTIKOA ETA TEKNIKOA

Zuzendaria: **Andrea Jiménez** / Egilea: **Noemi Rodríguez** / Eszenografia: **Monica Borromello** / Jantziak: **Paola de Diego, Sigrid Blanco, Candela Ibañez** / Bideoa: **Ro Gotelé** / Koreografia: **Amaya Galeote** / Argiztapena: **Miguel Ruz** / Zuzendariaren laguntzailea: **Macarena Sanz** / Argazkigintza: **Danilo Moroni** / Dramaturgia-aholkularia: **Eva Redondo Llorente** / Prentsa: **María Díaz** / Ekoizpena: **Teatro En Vilo** / Banaketa: **Proversus**.

Hoy puede ser mi gran día Teatro en Viloren ekoizpen bat da.
Iraupena: **70'**

Informazio gehiago: www.teatroenvilo.com

UZTAILAK 26
 ASTEARTEA
LA CAVA
 22:00

LA VIDA VIVIDA Y POR VIVIR

José Manuel Garrido

Zuzendariak: **Tomás Muñoz** eta **Pepe Galera**

MUSEO UNIVERSIDAD DE NAVARRA

Antzerki ona bezala, *La vida vivida y por vivir* gatazkatik sortzen da (indibiduala, erlijioso, soziala...) eta publikoarekin partekatzen denean soilik gauzatzen da. Kasu honetan, antzerki-proposamen esperientziala eta parte-hartzailea.

Hemen, gatazka kanpotik etorri zaigu; pandemia eta horren ondoriozko itxialdia da azkenean gatazka indibidual gisa barneratu duguna. Horri buruz hausnarketa egin dugu. Zehazki, "adinekoak" deitzen ditugun horiei gertatu zaienari buruz; izan ere, bere ikusgaitasuna oso era gordinean agerian utzi duen populazioaren segmentu bat dira. Eta hausnarketa hori publikoari itzultzen diogu. Errailetatik jaiotzen den bozgorailu xume bat da.

Proiektua konfinamenduan zehar azalatu eta iragazkortasun handiarekin hedatzen da, sormen talde bikain bati esker, zeinean aktore-taldea bera nabarmentzen den; haiek dira, profesional bikainek babestuta, publikoarengana iristen den egia antolatzen dutenak

AKTOREAK

Vicente Apezteguía, Mayte Baynes, Ivonne Baptista, Isabel Cabanellas, Antonio Eslava, Jesús Hernández Aristu, Maite Montes, Maite Oreja, Ramón Poza, eta Francisco Javier Salvo.

LANTALDE ARTISTIKOA ETA TEKNIKOAK

Zuzendaria: **Tomás Muñoz**, **Pepe Galera** / Ideia eta kontzeptu dramaturgikoa: **José Manuel Garrido** / Dramaturgia: **José Manuel Garrido**, **Tomás Muñoz** eta **Pepe Galera** / Koreografia: **Dani Pannullo** / Argiztapen diseinua: **Tomás Muñoz** / Hautaketa musikala: **Tomás Muñoz**, **Pepe Galera** / Ikus-entzunezkoak: **David Bernués (Acrónica)** / Aholkularitza psikopedagogikoa eta gerontologikoa: **Nuria Garro** / Aholkularitza filosofikoa: **Ibis Albizu** / Ekoizpena: **Iris Torre** / Ekoizpen-laguntzaileak: **Álvaro Zimeri**, **Arancha Pascualena** / Komunikazioa: **Karla Rosales**, **Laura Aizcorbe**, **Leire Escalada**, **Marta Martínez Arellano** / Zuzendari teknikoa: **Vicente Briñas** / Ekoizle exekutiboa: **Teresa Lasheras**.

La vida vivida y por vivir Museo Universidad de Navarraren ekoizpen bat da, Caja Navarra Fundazioaren eta Obra Social La Caixaren babesarekin eta Iruñeko Udalaren laguntzarekin. Iraupena: 70'

Informazio gehiago: www.museo.unav.edu

📍 NAFARROA 🎭 ESPERIENTZIA



LOS PERROS

LED SILHOUETTE eta MARCOS MORAU

UZTAILAK 27
ASTEAZKENA
LA CAVA
22:00

Garai digitalean jaio direnak, beren garaiko seme-alabak direnez, egoera ezegonkor eta nahasi batean daude, eta horrek deshumanizazio- eta isolamendu-prozesu baten aurrean jartzen ditu (eta jartzen gaitu); horretarako, badirudi konponbiderik arrakastatsuen banakako blindajea dela, identitate bereizi bat edo marka personal bat sortzea.

Inoiz baino gehiago, salgai dagoen produktu bat gara, eta gaztetasuna da balorerik gutzituena. Garaikidetasunak gorputz hauskorak suntsitzen ditu, zaurgarrienak zatikatzen ditu eta baztertzen ditu matxinadarako aukeraren eta otzantasunaren artean eztabaidatzen duten (dugun) moldakaitzak.

Etengabeko borroka ezezaguna den kontraesan horretan bestea beharra sortzen da, ulermena, enpatia, errukia eta maitasuna premiazko baliabide gisa.

Los Perros antzezlanak erresistentzia-egoera batera iristea proposatzen du, noraezean dabilzan txakurrak bezala, topo egiten duten txakurrak, zaurgarritasuna aitortuz, poza –baina baita mina ere– partekatzen dutenak, erortzen eta altxatzen direnak, dantzatzen direnak; maitasunaren, eskuzabaltasunaren eta konpromisoaren bidez matxinatzen diren txakurrak, amankomuneko ibilbidean beren bizitzen zentzua aurkitzeko; indarkeria eta hondamena elkarrekin gainditzeko.

Errepikapenaren trantzetik irudien segidarekiko lilurara doan proposamena da, denbora eta lengoaien gurutzaketa etengabea: Iraganari lapurtu eta geroari botatako irudiak, orainaldiko irudiak iraganaldiak zikindutakoak, plastika garaikidetik antzinako forma lurtarretara.

Bi gizon besarkatuta.

Bi gizon dantzan, dena amaitu eta dena berriro hasi arte.

AKTOREAK

Martxel Rodríguez eta **Jon López**.

LANTALDE ARTISTIKOA ETA TEKNIKOA

Zuzendaria: **Led Silhouette** / Egilea, zuzendari artistikoa eta koreografoa (aktoreekin elkarlanean): **Marcos Morau** / Testuak: **Carmina S. Belda** / Itzulpena: **Gaizka Sarasola** eta **Mattane Rodríguez** / Ahotsa: **Oier Zuñiga** / Zuzendaritza teknikoa eta argiztapen-diseinua: **Andoni Mendizabal** / Musika eta soinuaren diseinua: **Cristóbal Saavedra** / Eszenografia: **David Pascual** / Argazkigintza: **Irantzu Pastor** / Jantzigintza: **Cobos Vestuario** / Maskarak eta tresneria: **Juan Serrano - GADGET Efectos Especiales** / Protesiak: **Martí Doy** / Ekoizpena eta banaketa: **Led Silhouette** / Ekoizpen-laguntzailea: **Nagore Martínez**.

Los perros Led Silhouetteren ekoizpen bat da, Nafarroako Gobernuo Kultura Sailaren DNA programaren eta Caja Navarra Fundazioa - Fundación La Caixaren INNOVA Culturalen laguntzarekin.
Iraupena: 50'

Informazio gehiago: www.ledsilhouette.com

 **UZTAILAK 28, 29, 30 ETA 31**
ARKUEN ARETOA
ERRIBERRIKO JAUREGIA
 18:00

LA MELANCOLÍA DEL TURISTA

OBJEKTU DOKUMENTALEN ANTZERKIA

Egileak eta aktoreak: **Shaday Larios eta Jomi Oligor**
 OLIGOR Y MICROSCOPIA

Une eta objektuen deskonposizioa, paradisuaren ideia irudimenean finkatuz. Oporretako leku batzuetan egindako landa-lan batetik sortu zen; haietan berreskuratu ziren fantasia mental horren gorakadaz eta beherakadaz hitz egiten duten aztarnak.

Zenbat segundo behar dira paradisia eraikitzeko eta galtzeko? *La melancolía del turista* jada existitzen ez den edo inoiz existitu ez den paisaia sublimatu baten intentsitatearen atzean geratzen denaren ispilu-galeria bat da, denboran lausotzen den eta oroimenaren hondakinen bidez bakarrik berpizten den gorputz batena. Horregatik, gure atsedean-ideian sortzen diren irudien bizitza zalantzan jartzen da. Baina malenkonia salbuespenarekin batera doan gogo-egoera etengarria ere bada, indar aktiboa, gauzen inertzia hausten den tarte horietan berrasmatzeko —baita gure burua berrasmatzeko ere— desirara garamatzana.

Bidaia intimoa 42 ikuslerentzat. Begiak kliskatuz agertzen eta desagertzen diren gauzen eskalako eszenatoki txiki bat: argiak eta itzalak, irudi analogikoak, mekanismo hauskorak, paperezko eta latazko miniaturak. Antzerki-zine samur bat, ametsen jolas bat, zeinaren asmamen poetikoak gure jostailu guztiak bizirik zeuden unera garamatzen.


LANTALDE ARTISTIKOA ETA TEKNIKOA

Egileak eta aktoreak: **Shaday Larios eta Jomi Oligor** / Laguntza poetikoa: **Ángel Hernández** / Sormen-laguntza: **Ivan Puig eta Jordi Fondevila** / Laguntza musikala eta soinu-laguntza: **Suetszu & Jayrope** / Marrazkiak: **Pepe Oligor**

La melancolía del turista OLIGOR Y Microscopiaren, IBERESCENAREN, Ayuntamiento de Zaragozaren, pyrenArten, Le parvisen, Temporada altaren, Grec-en eta Fondos Federen arteko ekoizpen bat da.

Iraupena: **90'**

Informazio gehiago: www.oligorymicroscopia.org



EGONALDIA: LLUEVEN VACAS

Carlos Be
BOGA-BOGA



 **UZTAILAK 28**
OSTEGUNA
ERRIBERI
19:00

UZTAILAK 30
LARUNBATA
BEIRE
19:00

Boga-Bogak, Erriberriko Jaialdian emango duen egonaldian, *Llueven vacas / Behi-jasa* proiektuari hasiera emango dio lan-laborategi batean. Testu poetiko eta irekia, narratiba eszeniko berriak ekartzen lagunduko duen ikerketa eta sorkuntza eszenikorako prozesu bat bultzatuko duena. Horretarako, ikerketa eszenikoan ibilbide luzea egin duten Amancay Gaztañaga eta Iraia Elias sortzaileen kanpo-aholkularitza du.

Carlo Beren testua, *Sello Contra la Violencia de Género del Ministerio de Igualdad en 2017*, izango da Boga-Bogak, egonaldi honetan, bitartekaritza-jarduerak aztertu eta garatzeko esparrua, bere ibilbideari eta prestakuntza-esperientziari leialki jarraituz. Proposamen horretan, arte eszenikoak emakumeen aurkako indarkeriari buruz sensibilizatzen laguntzen duten tresnak dira, bai eta genero-desberdintasunei buruzko gogoeta-gune bat ere.

Egonaldiaren beste elementu garrantzitsu batzuk sorkuntza kolektiboa eta espazioak sortzea dira, zeinetan lan egin, sortu, ikertu eta, azken batean, arte eszenikoak euskaraz ere bizi ahal izango diren.

AKTOREAK

Adriana Salvo, Iñigo Aranbarri eta Laura Penagos.

LANTALDE ARTISTIKOA ETA TEKNIKOA

Dramaturgia: **Carlos Be** / Sortzailea: **Boga-Boga** / Aholkularitza eta kanpoko begirada: **Amancay Gaztañaga** eta **Iraia Elias** / Eszenografia: **Boga-Boga** / Jantziak: **Aiora Ganuza** / Argia eta soinua: **David Bernués, Acrónica Producciones** / Irudi grafikoa: **Sandra Vallejo**.

 *Behi jasa* Boga-Bogaren ekoizpen bat da.



UZTAILAK 28

OSTEGUNA

TAFALLA

19:00

UZTAILAK 29

OSTIRALA

ERRIBERRI

19:00

La Caja Flotantek hamar urte daramatza sormen prozesuak garatzen eta pixkanaka antzerkiaren eta zinematografiaren arteko mugara hurbildu den hizkuntza propioa bilatzen. Hamar urte hauen ondoren, dramaturgia garaikidearen aldeko apustua egiteko eta sormen prozesuetan arreta jartzeko gogoarekin jarraitzen dute, konpainiaren sormen unibertsoa ikertzeko eta sakontzeko helburuarekin.

Callados peces que habitáis en el agua, Ion Iraizozen beraren testuetan oinarrituta idatzia, antzerki-*matrioska* bat izango da, fikziozko plano desberdinak uztartuz: idazle batek emandako hitzaldi bat, film bat eta antzerki emanaldi bat.

Egitura horretatik abiatuta, gogoeta egin nahi dute arte-sorkuntzari buruz, artearenganako fedeari buruz eta ikusle bezala bizi izan dituzten fikzioei buruz, onerako edo txarrerako, gaur direna bihurtuz.

AKTOREAK

Ion Iraizoz eta Gloria March. Aktore gonbidatua: María Araiz.

LANTALDE ARTISTIKOA ETA TEKNIKOA

Zuzendaritza eta dramaturgia: Ion Iraizoz / Kanpoko begirada: Albert Pérez / Dramaturgiarako aholkularitza: David Mallois / Soinu-espazioa: Adolfo García / Ikus-entzunezkoak: Ainara Pardal / Espazio eszenikoa: Los Reyes del Mambo / Ekoizpena: La Caja Flotante.

Callados peces que habitáis en el agua La Caja Flotanteren ekoizpen bat da.

EGONALDIA: CALLADOS PECES QUE HABITÁIS EN EL AGUA

Ion Iraizoz

LA CAJA FLOTANTE



LEAR!

Egilea eta Zuzendaria: **Pablo Bujalance** William Shakespeareren lanean oinarrituta
ANTONIO ZAFRA, COMPAÑÍA DE TEATRO INCLUSIVO



UZTAILAK 29

OSTIRALA

CENTRO CULTURAL TAFALLA KULTURGUNEA

19:30

Nor da Lear? Haserrerako joera duen errege bat? Bufoi izateko hautagai bat? Ekaitzen azpian biluzik geratzea atsegin duen agure amorratu bat? Shakespeareren tragedia baten protagonista?

Lear hori guztia bada baina, batez ere, hiru alabaren aita da eta hauei boterea eta gobernua beren maitasunaren truke uztea erabakitzen du.

Hori bai, argi izan behar du adierazitako sentimenduak ez datozela beti bat bizi izandakoekin. Eta ez da erraza onartzea norbaitek espero ez bezala maite gaitzakeela. Batez ere, zoroekitsuak gidatzen dituztenean.

AKTOREAK

Antonio Zafra

LANTALDE ARTISTIKOA ETA TEKNIKOA

Egilea eta zuzendaria: **Pablo Bujalance** / Musikariak: **José Antonio Villodres** (biola), **Pablo Bujalance - Manuel Santiago** (gitarra eta perkusioak) / Argiztapena eta soinua: **Victor Alfonso** / Aholkularitza Espainiako zeinu hizkuntzan: **Katy Fernández** eta **Luisa Aguilar** / Argazkiak: **Álvaro Cabrera** eta **Manuel Malaka** / Banaketa: **Cristina Gandarias** eta **Entre-Bambalinas, Gestión cultural**.



Lear! Compañía Antonio Zafraren ekoizpen bat da.
Iraupena: 90'

Informazio gehiago: www.antoniozafra.com/lear

@zafra_antonio_zafra

@zafra_antonio_zafra

ANDALUZIA

EMANALDI IRISGARRIA

LAS AVES

Joan Yago

Zuzendaria: Israel Solà

LA CALÒRICA



 **UZTAILAK 29**

OSTIRALA

LA CAVA

22:00

Aristofanesen *Hegaziak* K.a. 414an estreinatu zen. Bi atenastar dirudunen historia, beren arazo partikularretan esku hartze publikoaz aspertuta, gizakien mundua utzi eta zibilizazio berri bat sortzeko hegaziak konbentzitzen dituztenak.

Atenasko demokraziak berrogeita hamar urte bete ere ez ditu egin, eta Aristofanek jada salatzen ditu herriaren arazoak beren helburu indibidualak lortzeko erabiltzen dituzten horiek.

2.500 urte geroago, La Calòricak *Hegaziak* birbisitatzen du populismo neoliberalak funtzionarazten duten mekanismo emozionalak aztertzeko eta nazioartean izan duen gorakadaren arrazoiak zalantzan jartzeko.

Zer egin dugu populismoa geldiarazteko? Zenbateraino gara iragazgaitzak haien lelo sendoen aurrean? Zer geratzen da benetan demokratikoa mendebaldeko demokrazietan?

Ikuskizun honetan, La Calòricak bere kideen ahalmen komikorik handiena ateratzen du komedia larria, gehiegizkoa, batzuetan jasanezina ere sortzeko. Hegaztiei hitz eginarazten dien komedia eta buruzagi politikoak DJ mesianiko bihurtzen dituena.

Komedia honetan umorerik beltzena eta absurdoena diskurtso politikoaren zerbitzura jartzen da. Komedia eklektikoa, publikoak sailkatzeko asmoz erabil dezakeen edozein koordinatu kartesiar lehertarazteko gauza.

AKTOREAK

Xavi Francés, Aitor Galisteo-Rocher, Esther López eta Marc Rius.


LANTALDE ARTISTIKOA ETA TEKNIKOA

Zuzendaria: **Israel Solà** / Dramaturgia: **Joan Yago** / Eszenografia, jantziak eta argiztapena: **Albert Pascual** / Soinu-espazioa: **Guillem Rodríguez, Arnau Vallvé**ekin elkarlanean / Karakterizazioa: **Anna Rosillo** / Eszenografiaren eraikuntza: **La Calòrica** eta **La Forja del Vallès** / Jantzigitza: **Albert Pascual** / Eszenografiaren LED argiak: **L&D Lights** / Makinista: **Pere Sánchez** / Off ahotsak: **Queralt Casasayas, Arnau Puig, Andrea Ros, Vanessa Segura, Júlia Truyol** eta **Pau Vinyals** / Ikuskizunaren argazkigintza: **Anna Fàbrega** / Ikuskizunaren bideo-grabaketa: **Moosemallow Crew** / Ekoizle exekutiboa: **Júlia Truyol**.

Las aves La Calòrica konpainiaren ekoizpen bat da, Temporada Alta Jaialdiaren laguntzarekin eta Sala Becketten sostenguekin.

Iraupena: 90'

Informazio gehiago: www.lacalorica.com

 @la_calorica

 @lacalorica

* UZTAILAK 30

LARUNBATA

LA CAVA

22:00

Kartel bat atearen heldulekutik zintzilik dago. "Logela egin, mesedez". Hondartzatik itzultzean, oheak eginda, eskuoihal garbiak eta bainua ezin txukunagoa.

Garbitzen dutenak dira. Sistema turistiko prekarizatzailea bere gain hartzen duten ikusezinak dira. Satira utopikoa da, lan-eskubide eta eskubide sozial justuak lortzeko hoteletako gelarien borroka antolatuan oinarritzen dena. Haien aurrean, hotel-kateen jabeen diru-goseak. Bada sekula komunik garbitu ez duena, eta bostehun hilean garbitzen dituen ere.

Komedia garratz eta itxaropentsu honek hoteletako garbitzaileen borroka antolatua aldarrikatzen du, baita turismo-eredu jasangarri bat irudikatzeko beharra ere, lurraldearekiko eta jendearen bizitzarekiko adeitasunezkoa izan behar duena.

AKTOREAK


Areta Bolado, Noelia Castro eta Ailén Kendelman.

LANTALDE ARTISTIKOA ETA TEKNIKOA

Egilea eta zuzendaria: **Areta Bolado, Noelia Castro** eta **Ailén Kendelman** / Dramaturgiarako laguntza: **Paula Carballeira** / Jatorrizko musika: **Ailén Kendelman** / Karakterizazioa eta jantziak: **Esther Quintas** / Jantzigintza: **Beatriz Novas** eta **Marta Ferrer** / Eszenografia: **Beatriz de Vega** / Eszenografia-laguntzailea: **Daniela Rodas** / Argiztapena: **Del Ruiz** / Hizkuntz-aholkularia eta itzulpena: **Rosa Moledo** / Mugimendu-aholkularia: **Clara Ferrão** / Begi magikoa: **Sara Rodríguez** / Ekoizpena: **Ailén Kendelman** / Ekoizpen-laguntzailea eta dokumentazioa: **Celina F. Ponte** / Irudi grafikoa: **Carla Berrocal** / Bideoa: **Álex Penabade** / Trailerra: **Lucía Estévez** / Argazkigintza: **Pilar Abades** eta **Leticia T. Blanco**.

LAS QUE LIMPIAN

Egileak eta zuzendariak: **Areta Bolado, Noelia Castro** eta **Ailén Kendelman**
A PANADARÍA



Las que limpian A Panadariaren eta Centro Dramático Nacionalaren ekoizpen bat da.
Iraupena: 80' ggb

Informazio gehiago: www.apanadaria.com

@apanadaria

GALIZIA

NAFAR KONPAINIEKIN TOPAKETA

Ana Artajo eta Nerea Alejosekin



 **UZTAILAK 31**

IGANDEA

TURISMO BULEGOA - ARDOAREN MUSEOA, ERRIBERRI

13:00

Beste behin, Ana Artajo (antzerki kritikaria eta antzerkigilea) eta Nerea Alejos (*Diario de Navarra* kultur-kazetaria) Erriberriko Antzerki Jaialdian parte hartzen duten konpainia nafarrekin bilduko dira.

Artisten eta kazetarien arteko topaketetan aperitibo bat zerbitzatuko da Reyno Gourmeten kortesiaz.

Sarrera librea da lekua bete arte.



MALVIVIR

Álvaro Tato, Urrezko Mendeko nobela pikareskoetan oinarrituta

Zuzendaria: Yayo Cáceres

AY TEATRO



 **UZTAILAK 31**

IGANDEA

LA CAVA

22:00

Elena de Paz, pikarora, emakume askea, errebeldea, lapurra, burutsua, gezurtia eta iheslaria, bere garaiko konbentzio guztiei aurre egiten diena eta bere askatasunaren prezioa ordaintzen duena, bere bizitza sekretua kontatzen du lehen pertsonan.

Malvivir Urrezko Mendearen aurpegi ilunerako bidaia da; garai nahasi eta liluragarri bateko gizarte-geruzen, agertokiaren eta pertsonaien barna.

Elenaren eta Montufarren arteko maitasun urratu eta basatiaren istorioa ere bada; bi pikarok ziztrin distiratsu eta goseti, ametsen eta engainuen, fedearen eta sorginkeriaren, ilusioaren eta heriotzaren Espainia batean.

Ay Teatrok XVII. mendeko ikuspegi tragikomikoa aurkeztu du, askatasunari eta biziraupenari buruzko hausnarketa bat eta Barrokoko emakumeen literatura pikareskoa berreskuratzen du. Antzezle biek pertsonaia guztiak bereganatzeko erronkari aurre egiten diote, eta zuzenean jotzen eta abesten duen errabelin baten presentzia etengabeak, ekintzan laguntzen du eta espazio eta atmosfera desberdinak sortzen ditu.

AKTOREAK

Bruno Tambascio, Aitana Sánchez-Gijón eta Marta Poveda.

LANTALDE ARTISTIKOA ETA TEKNIKOAK

Zuzendaria: Yayo Cáceres / Dramaturgia: Álvaro Tato / Musika: Yayo Cáceres / Eszenografia: Mónica Boromello / Jantziak: Tatiana de Sarabia / Argiztapen-diseinua: Miguel A. Camacho / Soinuaren diseinua: Eduardo Gandulfo / Diseinu grafikoa, argazkigintza eta bideogintza: David Ruiz eta Txus Jiménez / Jantzigintza: Maribel Rodríguez RH, Alejandro Jaén / Margolaritza eta giroitza: Davinia Fillol, Beatriz Nieto / Kapelak: Diana García / Jantziteria-laguntzaileak: Elena Arias, Igone Teso / Zuzendaritza-laguntzaileak: Antonio Hernández, Mario Portillo / Zuzendari teknikoak: Amalia Portes / Makinak: David González / Birako kudeatzailea: Germán Fabre / Ekoizpen zuzendaria: Emilia Yagüe / Ekoizle exekutiboa: Marina Camacho / Ekoizpen-idazkaria: Carmen Quirós / Prentsa: Daniel Mejías / Prentsa-laguntzailea: Jorge Ochagavía / Banaketa: Emilia Yagüe.

Malvivir Ay Teatrotoren ekoizpen bat da.
Iraupena: 90'

Informazio gehiago: www.ayteatro.com

 MADRIL

 EMANALDI IRISGARRIA

www.FestivalTeatroOlite.es

#AntzerkiaErriberri2022 / #KulturaBirkargatu



Antolatzaileak:



Laguntzaileak:

